

## 2003-KO LAN HITZARMENA

Uztaileran 15ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletako Lan Hitzarmena sinatu zen. Sinatzaileak, Ikastolen titularren erabateko ordezkariak, hau da Partaide eta EIB eta langileen ordezkariak aldetik LAB sindikatuak (%55eko ordezkariak).

Lan Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa izango da.

Lan-Hitzarmen honetan agertzen diren berrikuntza garrantzizkoenak honako hauek dira:

### SOLDATA:

*Personalgo dozeentezat, batz bestea %3,9 ko igoera. Zerbitzuetako personalgoarentzat %4.*

Finantziario publiko gehigarri bat iritsiko balitz, lantzerien taulak berrikusi egingo lirateke (errebisio klausula).

### ORDUTEGIA:

*DBH ko 1 eta 2 zikloko tutoreentzat asteko eskola ordu bat gutxiago, beraz DBHko 1 zikloko tutoreak, Astean 20 eskola ordu izango dituzte eta DBH ko 2 zikloko tutoreak asteko eskola orduak 19.*

### 0-3 ZIKLOA

- Maisu-maistrak HH 2 zikloko ordutegia (Urteko orduak 1293, hauetatik 845 bitarteko eskola-ordu eta jolasaldi eta gutxienez 413 ordu osagarri, soldatari dagokionez HH 2 zikloko irakasleen berdina.
- Haur hezkuntzako hezitzaileak: urteko orduak 1585 ordu izango ditu eta hauetatik 105 osagarriak izango dira, 35 ordu osagarri gehiago izango dituztelarik, hau da, asteen eskola ordu bat gutxiago.
- Haur hezkuntzako hezitzaile- laguntzaile: urteko ordu kopurua 1585 izango da eta bere soldata gutxienez hezitzaileen %90koa.  
Perfil honek baldintzak edukiko ditu:  
a.-- Maisu- maistra eta hezitzaile-kopuruen arteko batura ezingo da 0-3 zikloko funtzionamenduko gela-kopurua baino txikiagoa izan.  
b.-- Perfil honen behin-behinekotasun izaera izango du 2006. urteraino.
- 0-2 urte bitarteko mailetarako, urte honetan hasten da 4 urteko homologazio prozesua, beti ere Hezkuntza sailak plazaratuko duen finantziario agindua kontuan hartuz. Urteko soldata-alorreko diferentzia %25<sup>a</sup> erantsiko zaio, emaitzari urtean adosturiko soldata-igoera aplikatuz.

### BAIMENAK

- Haurdunaldiengatik lizentzia: Erditu aurretik eta ondoren hartutako lizentziek 18 aste iraungo dute guztira. Lizentziak udako oporraldiekin bat eginez gero, 2 aste gehiagoz luzatuko da. Lehen 2 aste hauek zurgatuta geratzen ziren.
- Urtean gehienez ordaindu gabeko 15 eguneko baimena eskatu ahal izango du txanda batean edo bitan banatzeko.
- Harrerako seme-alabei adopzioko legedi bera aplikatuko zaie.
- Amatasun eta adineko pertsonak zaintzeko eszedentzietan antzinasuna zenbatu egingo da.

### BESTE BATZUK

- Ikastoletan ibili ziren langile historikoez kotizatu gabeko urteen eraginez izan dituen kalteak konpontzeko bidean beharrezkoa diren gestioak egiteko konpromisoa hartu da, asmoa azken dekretua kaltetutako langile gutxiei zabaltzea.

**LAB SINDIKATUAK** oso balorazio positiboa egiten du. Soldata alorrean erosmen ahalmena mantendu egiten da eta gainera ez dugu atal hau zeharo itxita uzten. Ordutegiari dagokionez, DBHko tutoreak eta 0-3 zikloko teknikariak beraien eskola orduak murriztuta suertatzen zaizkie.

0-3 zikloan egiten diren aurrera pausoak oso esanguratsuak gertatzen dira bai orduz eta zer esanik ez diruz. Ziklo honetako langile askok beren soldatetan %25a baino handiagoa izango den igoarekin aurkituko dira.

Ezin dugu ahaztu 0-3 zikloan diharduten langileen egoera nolakoa izan den aurreko urteetan, baliabide ezaren ondorioz. Poliki-poliki arautzen hasi ginen eta gero eta aurrerapauso esanguratsuak ematen ari gara.

Aldi berean irakaskuntzako beste azpisektoreekin kanporatuz esan genezake ikastoletan ondoen daudela bai orduz eta baita diruz ere.

Baimenetan berriz aldarrikapen historiko bati erantzun bat eman diegu, ez da izan nahi genuen adina baina hobekuntza nabarmen bat bezala hartzen dugu, udako oporraldietatik 2 aste zurgatu barik gelditzea.

Oraindik ikastoletako langileak zeregin asko dugu, baina ezin dugu ahaztu 93. urteko baldintzak jarraitzen dutela bai diruz eta bai ratioz ikastoletan eta horiek gure iritzi zaharkituta geratu dira, kontuan izanda 10urte hauetan irakaskuntzak eduki dituen erroñkei aurre egiteko baliabide berriak behar ditugula. Honen aurrean Hezkuntza Sailak duen ardura ahaztu ezina da.

**Bilbo.**Rekalde Zumdi. 62-behea.KP:48010. Tlf.944706926.Post

Elek.irakuntzabizkaia@labsindikatu.org

**Donostia.**San Bladi 1 behea Tlf.943458562.Post. Elek. irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org

**Gasteiz.**Bueno Monreal, 10-behea. KP: Tlf. 945258404.Post. Elek.

irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org

**Iruñea.**Mercaderes, 25-1. KP: Tlf. 948210422. Post. Elek. irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org

**Baiona.**Marengo karrika,13. Tlf. 05595020. Post. Elek. baiona@labsindikatu.org